

BEZEROEKIKO HARREMANA

Gure zerbitzua aurrera ateratzeko bezeroekin kontaktuan jartzea ezinbestekoa izango da. Horretarako beraiekin kontaktuan jartzeko aukera desberdinak martxan jarriko ditugu. Lehen aukera zuzeneko kontaktua izango da, aukera honetan bezeroak lokalera hurbilduko dira eta gurekin hitz egingo dute zerbitzuaren inguruan eta eskaintzen ditugun aukera desberdinen inguruan. Horrez gain, zalantzak argitzeko aukera izango dute eta nahi izan ez gero lokala ikusteko aukera izango dute baita ere. Aukera hau, nahiko aproposa da izan ere gurekin zuzeneko kontaktua izateko aukera dago eta horrek hurbiltasun bat sortzen du bezeroa eta gure artean. Laburbilduz, lehenengo saioetan ate irekiak eskainiko ditugu dohainik.

Beste aukera bat online aukera izango litzateke. Aukera honetan, gure web orrian sartzera eta argazkiak, ordutegiak, instalazioak,... ikusteko aukera emango dugu. Nahiz eta online izan gurekin txat baten bidez kontaktuan jartzeko aukera izango dute eta gure zerbitzuan izena emateko aukera baita ere. Esan beharra dago, bezeroei gure zerbitzuaren berri heltzeko sare sozialetatik kartelak eta notiziak jartzen ibiliko garela. Honek aukera paregabea emango digu gaur egungo gazteriarri heltzeko eta animatzeko.



Udal-etxean gure zerbitzuari buruzko informazioa jasotzeko aukera izango dute eta bertan web orrialdea zein den aurkeztuko zaie eta eskuorri bat emango zaie baita ere zerbitzuan bertan egingo duguna azaltzen, ekintza desberdinak zeintzuk izango diren aurkezten, ordutegia, kokalekua,... adieraziz.

NORTZUK
GARA?

Gu Limahana enpresa gara eta Durangoko herrian Fametxe zerbitzu bat sortu dugu. Gure helburua, familia berriak ezagutzea eta seme-alabekin harremana sendotzea da.



FAMETXE

KOKAPENA **ORDUTEGIA**

Durangoko herria 17:00-18:30 (lehen txanda)
18:30-19:30 (bigarren txanda)

PREZIOAK

	heldu bat + haur bat	heldu bat + bi haur	Bi heldu + haur bat	Bi heldu + bi haur	Bi heldu + hiru haur
Hilean 2 saio	36,00 €	45,00 €	54,00 €	72,00 €	81,00 €
Hilean 4 saio	65,00 €	81,25 €	97,50 €	130,00 €	146,25 €
Hilean 6 saio	90,00 €	112,50 €	135,00 €	180,00 €	202,50 €



Aurrekoa kontuan izanik, gure prezioak finkoak izango dira eta ez ditugu aldaketarik egingo. Hori gutxi izango balitz, familia ugarietarako deskontua egingo zaie. Esan beharra dago, bezeroak gure zerbitzuaren bazkide izango direla eta honek aukera izango du ekintza berriak proposatzeko,... . Horrekin bat eginez,

Garrantzitsua da aipatzea, txanda desberdinak antolatuko direla eta bakoitzean familia kopuru bat egongo dela haur eta heldu kopuruak kontuan izanik, izan ere, aforoa oso garrantzitsua da ekintzak burutzerako momentuan (geroz eta edukiera txikiagoa egon orduan eta familia bakoitza hobeto ezagutzeko aukera izango dugu).

Azkenik, bezeroen motibazioa pizteko lehen eguna dohako jarriko dugu “proba eguna” izango balitz modura. Modu honetan gustukoa duten edo ez esperimentatu ahalko dute.